

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko ekainaren 19a / 263. zenbakia / 20. urtea

- **HERRIKO KONTUAK** Edalontzi berrerabilgarriak 05
- **ELKARRIZKETA** Anjel Lertxundi 13
- **KIROLA** Peña eta Urkizu judokak 08
- **IRITZIA** Ibon Berasaluze 18
- **AIAKO BERRI** Udako agenda 11
- **HERRITARRA** Erraustegiaren kontrako taldea 25



Batera jaio eta  
elkarrekin **hazi**

KARKARA sortu zen urte berean jaio ziren gazte hauek ere. Portada izan ziren 100.ean: ondoan ditugu gaur ere, 20 urte betetzen ditugu eta.

*Izarra*



**ARGAZKI DIGITALEN ERREBELATUA MOMENTUAN**



*Bideo Produksioa*

Aritzaga, 15; 20810, Orío Tf: 943 83 38 81 izarra.7@vodafone.es

**ITSASADARRA, S. L.**

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria  
finka administratzailea  
gestoria  
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 96 itsasadarra@itsasadarra.com  
Ibai Ondu 4, behea 20810 Orío



**islada**  
estecina zentroa

Sheila De Mignel - Saray Cendoya

Bakearen kalea, 2 behea Orío 20810  
Tf: 943 133 896  
e-maila: isladario@hotmail.com



**INDO**

Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**HAIZE BERRI**  
laborea-jaketxea-kafetegia

Plater konbinatuak,  
bokatak,  
hamburgesak,  
razioak,  
eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Bake lekuak, Iratze 1 48102 01 21 Iruera gurea! Gite

**Goizeko KAFETEGIA**

943 83 28 55

Aita Leizyundi 33 behea - ORIO  
Autobus parada ondoan

jaketxea  
logelak  
gazteategi

Elkano suzoa  
943 13 16 06

**AHOLKULARITZA**  
Fiscalia, laborala, kontablea

*Eugenio Garmendia*

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

Igo zaitez haize berrietara!

**Galerria**

943890416-677149934  
galerria.orioko@hotmail.com

**Gabon**  
TABERNA  
plater konbinatuak  
pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

**ERROTA**



- Eztei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabala
- Eguneko menua (lanegunetan)
- Oheak

Tfnoa: 943 83 54 65

**Pinturak ELKAR**

pintura eta paperatze lanak  
zoru leunketa

Abendaño industrialdea  
943 83 09 45 / 610 60 23 35  
ZARAUTZ

**bodegas ERRASTI, S. L.**



Eskualderako banatzailea  
Zudugarai, Getariako txakolina  
Ilagares, ardo gorri nafarra  
Bodegas Gallur: Señorío de Laurgain  
Gallur eta Ardanategi,  
Arabar Errioxako ardoak

Erriko Gutarri, 46 - ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

**Dorronoro Denda**

1961etik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA  
FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37



# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

**Kultur Etxea****20810 ORIO****943 83 15 27****karkara@karkara.com****Editorea**

Karkara taldea kultur elkarte

**Zuzendaria**

Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**

Mikel Aranzabal

**Erredakzio taldea**Lore Berasaluze, Pat Cowie,  
Monika Uzkieta eta Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

**Publizitatea**

Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**

Lore Berasaluze

**Festa-programaren diseinua**

Saioa Perona

**Testuen zuzenketa**

Miren Etxeberria eta

Jabier Zabaleta

**Ale honetako laguntzaileak**Garbiñe Azpiroz, Ibon Berasaluze,  
Iban Egiguren, Sara Iparragirre eta  
Aiora Larrañaga**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

**Banatzzaileak**

Ane Etxabe eta

Ander Mujika (Orio)

Ainize Sayago (Aia)

**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

**Lege gordailua** SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen edota  
iritzien erantzukizunik.KARKARAn argitaratutakoa berreman  
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

## Pozik noa dantza-eskolara

**SARA IPARRAGIRRE (DOINUA: AMA BEGIRA EZAZU)**

- 1** Dantzan hasita nago  
nerbioz beteta  
abarkan lokarria  
askatu zait eta.
- 2** Hanka gora altxatzen det  
lehenengo kolpean  
baietz ostikada bat  
jaso kopetean.
- 3** Dantza mota asko daude  
balet, flamenkoa,  
funky, break dance ta  
country, hip-hop, klasikoa.
- 4** Bi ordu jardun nintzen  
astelehenen bertan  
laster hasiko gara  
larunbat gauetan.



NEREA IPURTERREA

### PUBLIZITATE PREZIOAK

**IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat .....	12,00 €
Bi modulu .....	24,00 €
Hiru modulu .....	36,00 €
Lau modulu .....	48,00 €
Sei modulu .....	72,00 €
Zortzi modulu .....	96,00 €
Orrialde erdia .....	120,00 €
Orrialde osoa .....	204,00 €

**IRAGARKIA BEHIN JARRITA**

Modulu bat .....	16,00 €
Bi modulu .....	31,00 €
Hiru modulu .....	47,00 €
Lau modulu .....	64,00 €
Sei modulu .....	95,00 €
Zortzi modulu .....	127,00 €
Orrialde erdia .....	174,00 €
Orrialde osoa .....	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com

Prezio hauei BEZa gehituko zaie



EUSKO JAURTIARITZA

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

### LAGUNTZAILEAK



## Bisigua Orio Estilora

Oriotar agurgarriak:

Eskutitz honen bidez uztailaren 16tik 19ra antolatu dugun Bisigua Orio Estilora 2009 ospakizunaren berri eman nahi dizuet. Joan den urteko arrakastak behartu gaitu festari jarraipena ematera. Eta erronka onartzea erabaki dugu; gure estilora, berezko egiten gaituen Orio Estilora.

Orioko Udalaren izenean atsegin handiz gonbidatu nahi zaituztet bisiguaren festako bigarren edizioan parte hartzera, herritarrek festaren parte garrantzitsu izatea nahi dugu-eta. Hori dela eta, Orioko herritarrontzat, txarteldegia zuentzat propio zabaltzea erabaki dugu.

Bost otorduetako bat das-tatu nahi baduzue, ekainaren 26a bitartean txartelak erosteko aukera izango duzue. Erreserbak 943 830 904 telefono zenbakian egin behar dira 10:00-13:00 eta 16:00-18:00 (larunbata eta igandea barne). Txartel bakoitzak 45 euroko prezioa du. Telefono eta ordutegi berean irailaren 18an eta 19an Orion ospatuko den Txuletaren Egunerako txartelak erreserbatzeko aukera ere izango da.

Bisigua Orio Estilora 2009ko menua bost plater

hauek osatuko dute: antxoak gatzetan, tomate entsalada hegaluzearekin, arrain pastela, bisigua parrilan eta postrea.

Aurreko edizioan bezala, Luis Mari Uranga (Xixario jatetxea), Joxe Migel Zendoia (Katxiña) eta Andoni Mantetrola (Joxe Mari jatetxea) sukaldarietara dituzte bisiguak. Era berean, menuaren barruan *Crianza Ecania* ardoa, Getariako txakolina, *Insalus* ura, *Saizar* sagardoa eta *Aitona* kafea sartzen dira.

Janak on egin dizuela eta edariak kalterik ez.

Elkar ikusiko dugulakoan, agur t' erdi.

JON REDONDO  
(ORIOKO ALKATEA)

## Zaintza hobetzeko

Aia asko ari da handitzen, gero eta etxe gehiago egin dira eta industria handia du. Ezzait ondo iruditzen udaltzain bakarra izatea eta hori eguerdiko 15:00ak arte bakarrik egotea. Nire ustez, bi udaltzain egon behar lukete, gutxienez, lanerako dagozkien arropak jantzita eta herrian bueltatu gero, udaltzainak badaudela jakiteko jendeak; eta eguerdian arte bakarrik egon beharrean, gaueko 10:00ak arte.

Esateko daukat, baita ere,

herrian hustubiderik ez dagoela, eta zerrikeria guztia uretara joaten dela. Herrian putzu septikoa ez bada jartzen ere, beste herrietara eramane beharko litzateke zikinkeria hori eta ez errekarra bota eta dena zikin-zikin eginda utzi, gaur egun ezin baita han harrapatutako amuarrainik batere jan.

Etxe berriak egin aurretik putzu septikoak egin behar zituztela esan zuten, baina oraindik ez dituzte egin. Noiz egingo dituzte? Aian diru asko mugitzen da, industriak diru asko ematen du... Non dago diru hori?

HERRITAR BAT

## Bazkaria 70 urtekoentzat

Azken urtetako ohiturari jarraituz eta sanpedrotako festen barnean, Orioko Udalak hirurogeita hamar urte bete dituzten oriotarrentzat bazkaria antolatu du. Ekainaren 30ean izango da, Balea hotelean, arratsaldeko ordu bietan.

Parte hartu nahi dutenek karneta (nortasun agiria) aurkeztu beharko dute Zaharren Babes Lekuan izena emateko ekainaren 22an eta 23an, 16:00etatik 18:00etara.

Joatea daukaten herriko pertsoneri, gonbita egiten die

Udalak etor daitezten bazkari horretara eta, horrela, lagun arte onean, aldi atsegin bat pasatu.

ORIOKO UDALA

## 22an zatozte bilerara

DBHko eraikin berria laster inauguratuko dela-eta, Orioko Herri Ikastolak, bertan parte hartzeko gonbita eginez, gutun bat bidali die Ikastolako guraso, irakasle, langile eta ikasle ohiei.

Izan ere, Ikastolarentzako une garrantzitsua bezain pozgarria da honako hau, eta urrats hau ematea ezinezko litzateke 38 urteko ibilbidean bere lana, ilusioa eta konpromisoa ikastolaren alde erakutsi dutenen laguntzarik gabe.

Inaugurazioaren harira, zenbait ospakizun prestatzen ari gara. Etxean oraindik gutuna jaso ez baduzu, honen bidez, gaiaren inguruko xehetasunak ezagutzeko egingo dugun bilerara deitzen dizugu. Bilera ekainaren 22an, kultur etxean, arratsaldeko 19:30ean izango da.

Bertan elkar ikusiko dugulakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.

ORIOKO HERRI IKASTOLAKO  
ARTEKARITZA BATZORDEA



## Zaindu dezagun natura!

Aiar batek ekarri digu argazkia. Pagoetako bordan ateratakoa da, baina ez paraje ederra erakusteko, ume batzuek zuhaitzari egindakoa salatzen baizik. Pago horrek urteak behar izan ditu hasteko eta ume batzuen astakeriari eta gurasoen arduragabekeriari esker adarrak puskatu eta zintzilik dituela gelditu da. Natura zaintzea denon ardurua da eta txikitatik erakutsi behar zaie hori gatzetxoei.

## Argazkiko neska nor den ba al dakizu?



Ezagutzen al duzu argazkian ageri den neskatoa? Lasai, ez da eta desageratu, ez hasi gaizki pentsatzen. Oriotar batek ekarri digu argazkia, neska hori nor den jakin nahi duela, jakinminagatik.

40 urte inguru pasa dira fotoa egin zenetik eta itxura aldatuta egongo da, jakina, baina nor den badakizu, mesedez, jarri harremanetan KARKARAREKIN. Eskerrik asko.

HERRIKO JAIETAN SORTZEN DA ZABOR GEHIENA TABERNETAN

# Plastiko gutxiago erabiltzeko, edalontzi bereziak jaietan

**Edalontzi berrerabilgarriak izango dira sanpedroetan lehen aldiz hainbat tabernetan. Moilan, gainera edalontzi horiek hartu eta uzteko tokia jarriko dute.**

Jaietan kristalezko edalontzi asko puskatzen dira eta, erabili ondoren, zakarretara botatzeko plastikozkoak jartzen dituzte herriko tabernetan, kristalezkoen orde. Hori dela eta, hondakin asko sortzen da eta, zakar hori ahalik eta gehien murriztearren, edalontzi berrerabilgarrien aldeko apustua egin dute Orioko tabernari askok. Herri Natur Taldeak eskatuta, Udalak proposamena egin die tabernarietara eta horrela egitea erabaki dute Aterpek, Barakak, Errustak, Kalakarik, Tragoxkak eta Unarrek. Plastikoa arineko edalontziak erabili ordez, plastiko gogorrez egindakoak esku artean izateko aukera du jendeak, zabor gutxiago sortzeko.

## FUNTZIONAMENDUA

Edalontzi sistema hori ezaguna da herrian, txosnetan azken urteetan horrela egin baita, Herriok bultzatuta.

Herri sarrerako tabernei -han izaten da mugimendu handiena- 1.150na edalontzi banatuko zaizkie: 50, litrokoak; 100, txupitoenak; 500, sagardoarenak; eta beste 500, tamaina normalekoak.

Edalontzi berri horietan aterako dute edaria zerbitzariak eta 0,50 euro ordaindu beharko da eskatzen den edalontzi bakoitzeko. Hurrengotan, edalontzi bera erabili daiten berriz edo beste bat hartu barran bertan, baina gehiago edateko intentziorik ez bada, moilako edalontzien lekura eramane beharko da basoa.



Herri taldeko Eneritz Odriozola eta Leire Zinkunegi, ingurumen batzorde burua, tabernariekin.

KARKARA

## EDALONTZIEN GUNEA

Edalontzi berrerabilgarriak saldu, garbitu eta jasotzeko lekua jarriko da moilan. Tabernetan pilatzen diren edalontziak zikinak jasotzea eta tabernetan falta direnak osatzea han egongo diren ardura izango da. Ordaindutako 0,50 euro horiek itzuli beharrean,

Formigalen abenturazko kirola egiteko bi lagunentzat aste-buruko egonaldia zozketatuko da edalontzia atzera bueltatzen dutenen artean. Edalontziak lurrean edo zakarrontzian bukatzea saihestu nahi da neurri horrekin, ordaindutakoa itzultzeak ez baitu emaitza onik ematen, antza denez.

Formigalen abenturazko kirola egiteko bi lagunentzat aste-buruko egonaldia zozketatuko da edalontzia atzera bueltatzen dutenen artean. Edalontziak lurrean edo zakarrontzian bukatzea saihestu nahi da neurri horrekin, ordaindutakoa itzultzeak ez baitu emaitza onik ematen, antza denez.

## Aukeran, garbian edan!

Gezurra badirudi ere, orain bost urte pasatxo jarri genuen edalontzi berrerabilgarriena martxan. Egoscorkeria eta pazientzia handia behar izan dugu jendeak edalontzi horiek erabiltzeko. Bakoitzak hartu beharreko erabakia da: ingurumena babestu edo axolagabekeriari men egin. Bost urte luze eta hamaika sistema probatu ondoren, lortu dugu gure buruari jarri genion helburu potoloa: txosnetakoek izan ezik tabernarietara ere *Aukeran, garbian edan* baiezkota ematea. Dezenteko aurrerapausoa da eta sententzia gozoa dugu orain. Eskerrik asko lagundu digutenei eta heldu aukera garbiari.

GARBIÑE MANTEROLA | HERRIO NATUR TALDEA

## "NATURA GARA" FESTA

Basoetan gastatuko ez dituen 150 euro jarriko ditu taberna bakoitzak eta, horrela, sanpedroak egun bat lehenago hasiko dira. Ekainaren 26an, ostiralean, bertso-poteoa egingo da 19:00etan, edalontzi berrerabilgarriak gai hartuta eta gauean Azkair Pelox eta Dj Illarra herritarrek kontzertua eskainiko dute moilan, edalontziak aldatzeko tokian.

ENPRESA EKIMENAK BULTZATZEA ZEN LEHIAKETAREN HELBURU NAGUSIA

# Lizeagak eta Mujikak saria ideia berrien 2. lehiaketan

**Maiatza hasieran, Urola Kostan ekin!** enpresa ideien 2. lehiaketa jarri zuen abian Urola Kostako Udal Elkarateak. Ramon Lizeaga aiarrak irabazi du enpresan martxan jarritako ideia berrien lehiaketa. Ander Mujika oriotarra, berriz, lehen hiruen artean geratu da ideia berrien sormenean.

Eskualdeko bost udalerrietan enpresa ekimen berriak sustatzea eta bultzatzea, ekin-tzaileen artean sormena eta berrikuntza lantzea eta sortutako edo sortuko diren enpresa-ideia onenak saritzea ziren lehiaketaren helburu nagusiak, horrela, garapen sozio-ekonomikoa sustatzeko.

Aurtengoan lehiaketak bi atal zituen: alde batetik, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera sortutako edo sortzeko dauden enpresen atala; Ramon Lizeaga aiarra izan da horretan irabazle. Bestalde, enpresa-ideia, oraindik landu gabeak, eta atal horretan, Ander Mujika oriotar gaztea lehen hiruen artean izan da.

**ANTZINAKO EUSKAL GAZTAK** Ramon Lizeagaren ideia sari-tua berea duen Antzinako Euskal Gaztak izeneko enpresan erabiltzen du. Gaur egun, bederatzi gazta mota inguru ekoizten dituzte. Eusko Jaur-laritzak bideratutako beka beten bidez, Idiazabal marka sortutakoan desagertu ziren



Lehen hiruen artean geratu da Anderren ideia.

KARKARA

## Deustuko Unibertsitateak antolatutako beste lehiaketa batean ere 4. izan zen Mujika proiektu berarekin

gaztak identifikatu, errezetak birsortu eta merkaturatzen ditu.

### ARGINDARDUN EGUZKITAKOA

Eskolako lan gisa egin zuen ideia berri bat lantzeko proiektua Ander Mujikak, gelako beste lau ikaslerekin batera.

Eguzki xafla bidez argindarra sortzen duen eguzkitakoa diseinatu zuten. Esaterako, hondartzan irratia entzun ahal izateko edo, are praktikoago, etxeko terrazan jarri eta azpian edozein elektrotresna pizteko. Deustuko Unibertsitateak antolatutako beste lehiaketa batean ere 4. izan ziren proiektu berarekin.

### LABUR

#### TELEBISTA

### Salatxo Oh Happy Day! 2n

Ekainaren 12an, *Oh Happy Day 2n* aritzeko sailkatze fasea gainditu zuten Salatxo abesbatzakoek. Bigarren hautaketako programa ekainaren 28an emago du ETB1ek, eta azkena uztailaren 5ean. Lehiaketaren grabaketa urtarrilean hasiko da.

#### LEHIAKETA

### Orio Loretan

Orio Loretan lehiaketa antolatu du Udalak bosgarrenez, herriko leihorik eta balkoirik ederrenak saritzeko. Txapelketa bi eremu hauetan banatuko da: alde batetik, Ensantxea, Erriberak eta Bikamoita eta, bestetik, Alde Zaharra, Mutiozabal, Ibai Ondo, Dike eta Anibarko Portua.

Ekainaren 21a izango da turismo bulegoan izen emateko azken eguna.

#### INGURUMENA

### Erraustegiaren aurkako taldea

Ekainaren 10ean, Erraustegiaren Aurkako Orioko Plataformak sorrera eman zuen jakitera gaztelekuan egindako agerraldian. Hainbat erakunderen babesarekin, mobilizazioak iragarri zituzten; esaterako, zaborren kudeaketarako lege proposamen berriaren aldeko sinadurak biltzen jarraituko dute.

**ZAPATA KONPONKETAK**

Lanegunetan: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 18:00  
Larrietan: 09:00 - 13:00  
Herriko enpresan, Orio

tel/fax: 943 89 00 69  
Eizola kalea, 4. 20.680 ZARAUTZ

**URBIDE**

ITURGINTZA, BEROGINTZA  
GASA\_BAINU ERAKUSKETA

**ZSS**

Ilcapaindegia eta estetika mistoa

San Migel, 2 Telf.: 943 833170

**Zaragueta Eskola Orio**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezakuntza.net

IZEN EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO EKAINAREN 15ETIK

# Haur eta gazteentzako udako kirol eskaintza zabaldu da

**Udalak kirol eskaintza zabaldu du udarako eta izena emateko epea zabalik dagoeneko. Kiroldegian eman behar da izena.**

Honako hauek dira aurtengo uztailean eta abuztuaren antolatuko diren jarduerak:

**PIRAGUISMOA ETA ARRAUNA**  
Orio Arraunketa Elkartearen egingo da eta igerian jakitea ezinbestekoa da parte hartzeko. Bi hamabostaldi antolatuko dira: uztailearen 1etik 14ra eta uztailearen 15etik 28ra. Goiz eta arratsaldean izango dira eskolak, marearen arabera eta 10etik 17 urte artekoentzat izango dira. 26 euro ordaindu behar dira.

## TENISA

Izen emateko aukera lau hamabostalditan egongo da: uztailearen 1etik 14ra; uztailearen 15etik 28ra; uztailearen 29tik abuztuaren 12ra; eta abuztuaren 13tik 21era. Guztienez 6 urte eta gehienez 16koentzat. 16 euro ordaindu beharko dira 4. hamabostaldikoek izan ezik, 11,2 euro jarriko dute eta. Kiroldegian jarriko dira teniseko pistak.

## SURFA

Antilla hondartzan emango dira surf eskolak eta igeri egiten jakitea beharrezkoa da. Uztailearen 1etik 14rako; uztailean, 15-28; uztailearen 29tik abuztuaren 12ra; edo abuztuaren 13-26 hamabostaldia aukeratu beharko da eta 26 euro ordaindu. 10-16 urte bitartekoentzat izango da.

## IGERIKETA

Karelan egingo dira ikastaroak 4 hamabostaldi hauetan: uztailean, 1-14; uztailean, 15-28; uztailearen 29tik abuztuaren



Surfa udako kirol arrakastatsuenetakoa da.

KARKARA

tuaren 12ra; eta abuztuaren, 13tik 21era. 3-16 urte bitartekoentzat da eta bakoitzak 26 euro ordainduko beharko ditu, azken hamabostaldikoek izan ezik, 18,2 bakarrik ordaindu beharko dituzte eta.

## JOLASAK

Jolas asko izango dira aukeran: hondartzako boleibola, malabareak, fresbea... Bi hamabostaldi izango dira aukeran: uztailearen 1etik 14ra eta uztailearen 15etik 28ra; 11:30etik 12:30era bietan. Jarduera horietan aritzeko adin tartea 6 urteetatik 14ra bitartekoa izango da eta 16 euro ordaindu beharko da. Hondartzan eta kiroldegian egingo dira jolasak.

## HIP HOP-A

Zortzi eta hamabi urte bitartekoek 9:15etik 10:00etara ikasi ahal izango dute Hip Hop-a; 13 eta 16 urte bitartekoek, aldiz, 10:00etatik 11:00etara.

Uztailean bi hamabostaldi izango dira izen emateko aukeran: uztailearen 1etik 14ra, eta uztailearen 15etik 28ra. 20 euro ordaindu beharko da.

## FUTBOL JOLASAK

Uztailearen 6tik 17ra astelehenera, asteazkenetan eta ostiraletan, 18:30etik 20:00etara izango dira futbol jolasak eta 6 eta 12 urte bitartekoentzat dira. Mendibeltz zelaian izango da eta 20 euro ordaindu beharko da.

## SASKIBALOA

Uztailearen 29tik abuztuaren 12ra izango da saskibaloiko eskolatan parte hartzeko aukera, 11:15etik 12:45era, egunak oraindik zehazteko daude. 6 eta 12 urte bitartekoentzat izango da eta Zarauzko kirol elkarteak jardueraren antolatzailea. Karela kiroldegira joan beharko dute parte hartzaileak 16 euro aldeaz aurretik ordaindu eta gero.

**Tenisa, igeriketa, hip hop-a eta saskibaloia Karela kiroldegian izango dira**

**Jarduera guztiak ordaindu beharrekoak dira**

## HIPIKA

Uztaileko bi asteetan emango dira eskolak, baina egunak oraindik zehazteko daude. Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, 30 minutuko saioak izango dira, hiruna laguneko taldeetan banatuta. 10 eta 16 urte bitarteko gazteentzat izango da eta Zaragueta parean egingo dira saioak, softbolleko zelai zaharrean. Ordaindu beharrekoa, 26 euro.



Usurbilgo gizonetzkoen judo taldea ageri da argazkian.

KORO ARRATIBEL

USURBILGO JUDOKO GIZON ETA EMAKUME TALDEAK OHOREZKO MAILAN

## Ibai Peña eta Xabier Urkizu bigarren ligan

**Madrilgo Nazioarteko Judo txapelketan eta Espainiako ligan txapelkunorde izan ziren Ibai eta Xabier. Oiana Blanco, berriz, munduko txapelketarako sailkatzeko domina bila dabil.**

Usurbilgo Judo Taldean aritzen dira Ibai Peña eta Xabier Urkizu oriotarrak, eta klubak Espainiako ligako 2. postua lortu du klubaren arteko judoko liga gorenean. Liga horretan, 75 talde aritzen dira denera eta Espainiako talde onenek eta talde atzeritar batzuek ere jokatzen dute.

Talde sendoa da Usurbilgoa, hiru urte jarraian 3. mailatik Ohorezko Mailara igotzea lortu baitu. Iaz, 6. izatearekin konformatu behar izan zuten; baina, aurten, bigarren postua eskuratu zuten ekainaren 6an, larunbatean, ligako azken jardunaldiari zegokion

Madrilgo Nazioarteko txapelketan. Lan ederra egin zuten bi oriotarrek eta txapeldunaren kontra bakarrik galdu zuten: finalean, hain zuzen ere. Horrela, txapelketa horretan ere bigarren postua eskuratu zuten. Gipuzkoarrez soilik dago osatua Usurbilgo taldea eta emakumezkoek ere gorengo mailan jokatzen dute, tartean Oiana Blancok.

### BLANCOK, EZIN

Ekaineko lehen asteburuan, Portugalgo Nazioarteko judo txapelketara domina lortzeko asmoarekin joan zen Oiana Blanco, horrela munduko txapelketarako txartela eskuratu baitzuen, baina lehen borrokan 3 yukogatik irabazten joan arren, ondoeza egin eta galdu egin zuen Valentina Moscatt judoka italiarraren kontra.

Herbehereetako Rotterdam hirian jokatuko den

**Lehen borrokan, hiru yukogatik irabazten joan arren, ondoezik jarri eta galdu egin zuen Oiana Blancok**

munduko txapelketarako txartela lortzeko beste aukera izan zuen gero, ekainaren 14an, Madrilgo Nazioarteko judo txapelketan, baina ezin izan zuen han ere 5. postutik pasa.

Orain, Espainiako komisiok zer erabaki zain egon beharko du Oianak, horiek hautatzen baitituzte mundialera doazen judokak. Argi dago bera izanda Espainiako txapeldun, aukera asko dituela hautatua izan eta txapelketara joateko.

### LABUR

#### ARETO FUTBOLA **EHUrentzat hirukoa**

Ekainaren 6an, 17:00etan, Txema Gonzalez zenaren omenezko hiruko lehen torneo jokatu zen Orion. Zarautzek EHUri irabazi zion, EHUK Orioko Tabernak taldeari eta Orioko tabernak Zarautzi, beraz, puntutara berdinduta, golen arabera erabaki behar izan zuten irabazlea nor zen. EHUrentzat izan zen garaipena, Orioko Tabernak bigarren eta Zarautz izan zen hirugarren. Sari banaketaren ondoren, Txemaren neskalagunari eta familiari oroigarri bana eman zitzaion eta Ander Errastik agurra dantatu zuen ikusle eta lagunaren aurrean.

#### FUTBOLA **Esnaola lehen taldean**

Josu Esnaola oriotarrak Realarekin jarraituko du hurrengo denboraldian, baina, oraingoan, lehen taldeko jokalaririk gisa. Iaz, ligako hainbat partidutara deitu zuen Lillok lehen taldearekin, baina ez zuen debutatu.

#### PILOTA **Asegarcekoak frontoian**

Asegarceko Olaizola anaiak, Koka, Mendizabal II, Peñagarikano, Bengoetxea II, Saralegi, eta Chaffe pilotariak Orion izan ziren ekainaren 16tik 18ra. Balea hotelean Astore markako pilotarientzako diseinatutako arropa aurkeztu zuten eta, azken egunean, frontoian botilero lanak egiten aritu ziren Orioko pelota elkarteak antolatutako bikoteen arteko txapelketa azkarrean.



REGINA ODETTE DA SILVA | HAUR IGERIKETA ESKOLETAKO IRAKASLEA

# “Txikitan igeriketa lantzen dutenek garapen hobea dute”

Portugalgo Escadefen egin zituen hezkuntza fisikorako eta kirolerako ikasketak Reginak. Gaur egun Orioko kiroldegiko igerilekuan era guztietako eskolak ematen ditu, baina haurrekin egiten duen lanaz aritu gara.

## Zein adineko umeri irakasten diezu?

Lau hilabetatik bi urtera artekoekin aritzen naiz lanean, ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan.

## Nola moldatzen zara eskolak emateko hain adin alde handia egonda?

Taldearen barruan lana banatzen dut eta gurasoei, gutxi gorabehera, zer egin behar duten azaltzen diet, parte izan dezaten. Nahiz eta haurrak adin ezberdinekoak izan, ez dugu bereiztuta aritzeko modurik; beraz, 5 hilabeteko haur batekin eta urte eta erdikoarekin desberdin egiten saiatzen naiz.

## Hain txikiak izanda, etortzen al dira izen ematera?

Bada, gero eta gehiago. Guraso askok beldurra diotela urari; ez dakitelako igerian edo berandu ikasi dutelako... Ez dute nahi seme-alabei gauza bera gertatzea.

Eskola hauek oso onak dira haurrentzako, uretan sartzerakoan egiten dituzten ariketak lagungarri zaizkielako beren motrizitatea hobetzeko. Haurrak dituen gaitasunak lantzen ditu eta igeriketa eskolara datorrenak gauza gehiago lortzen dituela konturatzen naiz. Mugitzeko gaitasunaren aldetik, hona datorren haurra, goizago hasten da oinez, eskuak mugitzen... ez datorrena baino, estimulu asko jasotzen baitute.



Regina igerilekuan bi ikasleekin.

KARKARA

**Igeriketa eskolara datorren haurrak besteak baino gauza gehiago lortzen dituela konturatu naiz**

**Haurrak likidoan sortzen direla eta, berez omen dakitela flotatzen. Egia al da?**

Bai, erreflexu hori berezkoa dugu eta, beraz, bakarrik flotatzen eta ur azpian sartzen badakite. Oso garrantzitsua da jendeak jakitea babes arnasketaren erreflexua badu-

**Kontaktu fisiko handia izaten da, eta guraso eta haurren artean harreman estuagoa izateko balio dute ikastaroek**

tela umeeketa 6 edo 7 aste izan arte ez zaiela ura biriketan sartzen. Gero, bai, haurra ura edaten hasten da; baina lasai utzi daitezke uretan, ez dira itoko eta.

**Gurasoek haurrak baino okerrago pasatzen dute, orduan?**

Bada... bai. Hala izaten da batzuetan. Hurrei bidea egiten uzteko beldur izaten dira, baina, kontuz ibili behar da zeren beldur horiek seme-alabei transmitzen zaizkie.

**Beraz, igeri ez dakiten gurasoak ez hurbiltzea komeni da...**

Ez, alderantziz, hurbiltzea oso komenigarria dela uste dut nik, klase hauek kontaktu fisiko handikoak dira eta hurrek gurasoekin duten harremana estutzeko balio dute. Aita etortzen da gehienetan, baina biak izatea da egokia.

**Nolako ariketak egiten dituzue?**

Lehen fasea urarekin egokitze da eta, horretarako, erronkatxoak sortzen joaten gara: jostailuekin, arrain bat harrapatu... motrizitatea hobetzeko. Gero, gurasoekin harremana lantzen dugu eta, hirugarrenean, burua uretan sartu eta arnasa eteten erakusten diet pausoka: 1, 2, 3... putz eginez, ura irentsi ez dezaten. Gero, beren burua babesten erakusten diet: erzak bilatu eta heldu... Bukatzeko, hanketan eta eskuetan indarra badutenean, mangitoak kendu eta gerrikoarekin bakarrik, ur-azalean mantentzen badakitela ikusten dute eta gauza dira aitarengana eta amarengana beren kabuz joateko, lasai-lasai.

**Zenbat denbora behar izaten da ikasteko?**

Guk ordubeteko saioak egiten ditugu, baina horrekin ez da nahikoa izaten gehienetan, motz geratzen da. Horregatik, komenigarria izaten da, gero, gurasoek hemen ikasitakoari jarraipena ematea eta haurrak piszinara ekartzea.

INAXIO IRURETAGOIENA | OLARTETA MENDI TALDEKOA, ZEHARKALDIAREN ANTOLATZAILEETAKOA

# “Aia-Arantzazu zeharkaldia berezia da aiarrontzat”

Orain dela 25 urte egin zen lehenengo aldiz Aiatik Arantzazurainoko ibilaldia. Urteurren hori dela eta, Inaxio Iruretagoienarekin hitz egin dugu, bera hasieratik aritu baita antolatzaile lanetan, beste hainbat lagunekin batera.

**Gogoan al duzu nola hasi zineten Aiatik Arantzazurainoko ibilaldia antolatzen?**

Ondo gogoratzen naiz, bai. 1984ko uztailean izan zen aurreneko ibilaldia, uztailaren lehenabiziko larunbatean. Hala ere, lehenagotik ere baziren aiarrak bide hori eginda zutenak: Juanito Arruti *Kamio*, Pedro Arruti *Etxenagusi*, Pedro Albeniz *Azkorte*... eta nik ez dakizkidan beste batzuk ere izango ziren, noski. Haiek beste bide batetik joaten omen ziren: Aiatik Etumetara, handik Errezil bidera jaitsi eta Aratzerrekatik barrena joaten ziren Arantzazura.

Guk, esanda bezala, 1984an egin genuen bidea aurreneko aldiz. Lehenabiziko hartan parte hartu genuenak honako hauek izan ginen: Agustin Arruti, Kandido Larrañaga, Jose Luis Lopetegi, Tiburtzio Arruti, Agustin eta Balentin Aldalur, Inaxio Alberdi eta ni neu. Gustura egin genuen eta esan genuen polita litzatekeela urtero egitea, uztailaren aurreneko larunbatean eta halaxe egin dugu geroztik, nahiz eta beti data horretan ez den izan.

1985ean ere egin genuen; baina, orduan, beste bide batetik: Aiatik Zelatunera, handik Bidaniara eta, ondoren, Mandubiatik barrena.

**Nolakoa izaten da zeharkaldia?**

Goizeko bostetan ateratzen gara Aiako plazatik. Al-



Olarteta mendi taldeko Inaxio Iruretagoienak hasieratik parte hartu du zeharkaldian.

KARKARA

**“1984an egin genuen bidea aurreneko aldiz eta esan genuen polita litzatekeela urtero egitea, uztailaren aurreneko larunbatean”**

tzuzelai eta Granadatik Etumetara igo eta handik Azpeitiara jaisten gara. Han gosaltu egiten dugu eta, ondoren, Oñatz aldetik barrena Pagotxetara iristen gara (han, aurtun, eskaintza egingo diegu taldeko hildakoei). Segidan, Zumarragara jaisten gara eta, handik, Legazpira. Legazpin bazkaldu eta, ondoren, erre-

**“Era guztietako jendea biltzen gara, heldu nahiz gazte, eta oso giro onean egiten dugu bidea elkarrekin, nahiz luzea eta neketsua izan”**

pidez joaten gara Udanako gaina arte. Handik Kataberako maldak igo eta Bihotzkornia lepora iristen gara. Gain hartatik behera hartu eta Arantzazura iristen gara sei eta erdiak alderako.

**Luzea, ezta?**

Bai, zeharkaldi hau iraupen luzeko ibilaldia da, 52 kilo-

metro gutxi gorabehera, eta igoerako desnibela 1.991 metrokoa da eta jaitsierakoa, berriz, 1.573 metrokoa. Zeharkaldi luzea da, bai, baina egiteko modukoa, ibiltzen ohi-tura pixka bat izanez gero.

1999. urtean Joxe Migel Etxeberriak eta Ramon Sarobek neurtu zuten ibilbidea, Trumeter izena duen gurgildun neurgailuarekin: 52 kilometro .

**Gizon talde batek abiatu zenuten ibilaldia. Gauregun ere gizonetzkoak joaten zarete?**

Ez, ez! Laugarren urtetik aurrera hasi ziren emakumeak ere parte hartzen eta, handik aurrera, gero eta gehiago dira. Orain asko izaten dira. Urte batean ia gizonetzko adina emakume etorri ziren.

### Horrenbeste urtetan anekdotak ere izango ziren...

Makina bat gertakizun izan da, bai! Urte batean gogoratu dut nola bati gertatu zitzaion: alanbrezko hesia saltatzen hasi eta gerrikoa eten egin zitzaion. Eurria ari zuen, gainera, eta han joan behar izan zuen Zumarragaraino, esku batekin galtzari eutsi eta bestean aterkia zabalik zuela.

### Zer ematen dizu zuri zeharkaldi honek?

Uste dut zeharkaldi hau zerbait berezia dela aiarrontzat. Bizi ditugun garai zail eta zoro hauetan pozgarria da ikustea nola bakoitzak ematen duen bere denbora preziatuaren parte bat ibilaldia antolatu eta egiteko.

Era guztietako jendea bilitzen gara, heldu nahiz gazte, bai Aiatik eta bai auzoko herrietatik (Orio, Zarautz, Donostia, Usurbil, Asteasu, Villabona...) eta oso giro onean egiten dugu bidea elkarrekin, nahiz luzea eta neketsua izan. Gero, ondorenean, Aian egiten dugun afarian ere giro berezia izaten da; nekea eta gozamenezko nahasmen une hori, solasean elkarrekin amaituz.

### Zerbait erantsi nahi?

Eskerrak eman nahi dizkiegu urte hauetan guztietan laguntza eman digutenei. Aiako jende askok lagundu izan digu antolakuntzan, izenak hartzen, kartelak egiten, afariak prestatzen, txofer lanetan, mediku laguntza ematen...

Ezinezkoa da denak banan-banan aipatzea, asko eta asko dira-eta. Guzti-guztietan mila esker Olarteta taldearen izenean.

# udako agenda



## Aiako 2. auto igoera

Ekainaren 20an, larunbatean, Andatzatik Aiarako 2. auto lasterketa egingo da. 10:00etatik 12:00etara autoen kontrola egingo da Andatzan eta 16:00etan hasiko da igoera. Lehenengo, entrenamendu saio bat egingo dute eta, gero, lasterketako bi saioak. Errepidea 14:00etatik 22:00etara egingo da itxita.

### KURTSO BUKAERAKO FESTA

■ Ekainaren 20an, Lardizabal eskolako kurtso bukaerako festa.

### SAN JUAN SUA

■ Ekainaren 23an, 22:00etan sua, dantzak, abestiak eta zantantzarrak-ttuntturroak, herriko plazan.

### JAIK

■ Ekainaren 19an, 20an, 22an, 24an, eta 25ean, San Juan jaiak Iturriotzen.  
■ Ekainaren 28an eta 29an eta uztailaren 3an, 4an, 5ean eta 11n, San Pedro jaiak Andatzan.  
■ Ekainaren 28an eta 29an eta uztailaren 4an eta 5ean,

San Pedro jaiak Elkanon.

■ Abuztuaren 6tik 10era, San Donato eta San Lorentzo jaiak Aian.

### UDALEKUAK

■ Uztailaren 1etik 30era bitartean, 10:00etatik 13:00etara. Kirol jarduerak: igeriketa, tenisa, patinajea eta hipika.

### KULTUR ETXEA

■ Uztailean eta abuztuan 8:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.

### ZINEA

■ Zine emanaldia izango da uztailaren 4an, 22:00etan, plazan. Egun berean, postre lehiaketa antolatu dute, eta

ekarritakoak banatuko dituzte kafetxo batekin lagunduta.

### TXAPELKETAK

■ Abuztuaren 2ean, usokume tiraketa txapelketa, bolo txapelketa, artzain txakurren txapelketa eta pala txapelketako finalak.

### ESKULANAK IKUSGAI

■ Abuztuaren 2an, aurten egindako eskulanak erakusgai jarriko dituzte Goiz Argin. 12:00-14:00 eta 17:00-20:00.

### PAGOETA PARKEA

■ Iturrarango lorategi botanikoa 8:00etatik 19:00etara irekita.

### Iturrarango arreta zentroa

Uztailean, abuztuan eta irailean, 10:00-14:00 eta 16:30-18:30 asteartetik ostiralera eta 10:00-14:00 larunbat, igande eta jaiegunetan.

### ■ Agorregi

Uztailean eta irailean ostiral, larunbat igande eta jai egunetan, 10:00-14:00. Abuztuan egunero astelehenetan izan ezik. Bisita 11:30ean hasten da eta 12:00etan jartzen da martxan errota.

### IGERILEKUA

■ Irailaren 13a arte zabalik, 11:00-20:00. Bertako taberna eta jatetxea, 11:00etatik itxi arte.

### KIROL IKASTAROK

■ Aurten izango diren ikastaroak tenisa, patinajea, hipika eta igeriketa izango dira, denak abuztuan eta arratsaldean.

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**

**Igeltseritza**

699 46 76 21  
943 13 10 37

**RAMIRO**

erreportaje digitalak

943 83 10 48  
www.fotoramiro.com

## AIAKO LEHIOA

## Piszinan zer?

**A**urten hemen gara berriro ere, Aiako txoko ederrenean, piszinaan, alegia, zuekin uda pasatzeko asmoarekin, baina kontuz uda. Prest ditugu gure euskal abesti ederrak eta esan beharra dago apuntatu direla gure txoko horretara Pausini, eta nola ez Camelatxo, baita ere: zer egingo diogu bada, ezin ezetz esan, horiek ere bere momentua izaten dute eta.

Beno, beno, goazen harira.

Hasteko esan lehengo urtean portatu zinetela eta horregatik aurten premio, sari bat dagoela zuentzat: kafearen jela ez dizuet kobratuko. Ondo iruditzen al zaizue? A! baina oraindik, ordea, ez dut erabaki kafea pixka bat ez dudan garestitu beharko. A!

beno, piszinaan bertan zeredo zer erabakiko dugu denon artean. Gainontzean, aldaketa handirik ez da izango, beno igual gauzak ondo badoaz aterpe berri bat estreinatuko dugu, baina, tira, oraindik dena lotzeko dago eta aurten ez bada, ba datorren urtean izango da.

Berriro ere harrapatu nau udarak eta ni *sin operar y sin bikini*, hori niri, zeren gai-

nontzean, hemen gure Aiako neska-mutilak, jo ta ke, kilometroak eta kilometroakegin dituzte, bainan orain medikuak aldaketa txiki bat gomen datu du, lirain mantentzeko piszinaan bost luzerekin hasi eta pixkanaka-pixkanaka gehitzen joan 10, 20... eta segida onaizateko zaindu egin behar, entsalada, Gernikako piperrak, kostilla, txuleta, hojaldrea, *magrét* eta, noize-

an behin, buztana saltsan. Adi ogiarekin, hori beti tamainan. Beno, ze kasualitatea, hori dena piszinaan merke-merke dugu!

Gogoratu udan gaudela eta deskantsua merezi dugula, eta zer hobe hamaka baten gainean baino, itzalean edo eguzkitan helatu eder batekin... zertarako Marbella? Bertan onena, dudarik gabe.

Jakin dezazuela, ekainaren 13tik irailaren 13ra arte hemen egongo garela zuen zain irribarre eder batekin, baina ez beti, batzuetan bes-telakoa ere izango dela, eta espero dut inork ez gaizki hartzea nire aurpegi serioa ikusten badute, ni horrelakoxea naiz-eta: *ze ingoiyou ba!*

**Hemen, gure Aiako neska-mutilak, jo ta ke, kilometroak eta kilometroak egin dituzte lirain mantentzeko**

**Gogoratu udan gaudela eta deskantsua merezi dugula, eta zer hobe hamaka baten gainean baino...**

PILI AZPIROZ

## TXOKOAK ETA JENDEA



## Arantzazura mendiz mendi

Inaxio Iruretagoienak ekarri digu txoko honetarako argazkia. Berak aterea da eta horregatik ez da azaltzen. 1991 inguruan egindakoa da, Aiatik Arantzazura bitarteko zeharkaldian. Azaltzen direnak hauek dira, goiko ezkerretik hasita: J. C. Zuloaga, J. A. Lertxundi, Tiburtzio Arruti, Jesus Aranberri, Mila Eizmendi, Jose Mari Alkain, Pako Ibaguren, P. M. Lopetegi, Nekane Lertxundi, Isidro Lertxundi, Rafael Lopetegi, Candido Larrañaga, Luis Azkue, J. Miguel Odriozola eta Jose L. Lopetegi.

*15 urte pasa  
dira KARKARAK  
Andu Lertxundi  
idazlea  
elkarrizketatu  
zuenetik. Zita  
eskatu genion  
apirilean Oriora  
etorri zenean eta  
beti bezain adeitsu  
hartu gintuen bere  
Zarauzko etxean.  
Zaila izan zaigu bi  
ordu luzeko  
hizketaldia  
laburtzea eta kontu  
interesgarri asko  
geratu dira  
kanpoan.*

ANA G. DE TXABARRI ETA  
JABIER ZABALETA

**Orioko hitzaldian esan zenuenez, Orion egin zinen idazle...**

Nik buruan dauzkat orduko bi irudi, hitzaldian adierazi nituenak: batetik, ume batzuekin nago, ni baino gazteago diren ume batzuekin –tartean nire arreba bat ere badago eta irudia oso garbi daukat, alkatezaharreneko etxe aurrean-edo- eta han ari naiz *txiste* batzuk edo eskuetan –auskalo zer zen, *Capitán Trueno* edo-; *txistea* hartu eta han bi edo hiru ume haiei esplikatzan ari naiz hango biñetak, baina jada nire kasa. Nolabait, irakurri dudana nire erara ekarri eta, nire galbahetik pasata, esplikatzan nik nahi dudana bezala... fabulatzen.

Bigarren irudia: parrokiako zinean, estazioaren atzekoan, fotogramak bilatzen nituen hango zakarrontzian. Nik, fotograma haiek hartu, bata bestarekin josi eta istorioak asmatzen nituen, halako konbinaketa batzuk egin-



KARKARA

ANJEL LERTXUNDI | IDAZLEA

**“Txikitako Orio hura geratu zait finkatuta memorian”**

## 14 ELKARRIZKETA

2009ko ekainaren 19a | KARKARA

da. Hor dira bi elementu, niretzat oso esanguratsuak direnak. Alde batetik, beste hizkuntza batean irakurritakoak eta jasotakoak neure hizkuntzara pasatzen eta, gainera, besteei ematen, eta gero, bestetik, gauza oso desberdinak –fotogramak, kasu honetan– erlazionatzen. Uste dut, oinarri-oinarrian, azkenean nik gero egin dudana bizitza osoan literaturarekin hori izan dela: batetik, besteenak irakurri eta, ondoren, zurea sortzea, eta beste aldetik, elementu guztiz ezberdinak lotu eta berri bat sortzea, erlazioak egitea. Ikusten da bizitza osoan praktikatu dudala nola bait txikitzen Orion egiten nuen gauza berbera... eta zertarako, eta fabulatzeko!

### Ama irakurzalea zenuen...

Bai, oso. Etxean amak irakurzaletasun oso handia sartu zigun. Berak esaten zigun hau irakurri ezazu... eta gero hitz egiten genuen eta horrek asko eragin zidan. Uste dut nik ez nuela zaletasun hau izanog amagatik izan ez balitz.

Etxean, hala ere, ez zegoen libururik. Alde horretatik, gure amarentzat liberazio izugarria izan zen Zarautza etortzea eta hemengo liburutegia erabili ahal izatea.

Nituen eskasia fisikoek ere eragin handia izan zuten nire irakurtzeko zaletasunean. Ezin nuen futboleant egin edo korrika aritu... irakurtzea zen niretzat entretenimendua.

### 9-10 urterekin joan zinen Zarautza bizitzera. Bi herrien artean alde handia sumatuko zenuen, noski.

Egia esan, gu Zarautza etorri eta urtebetera-edo, Saturraranera joan nintzen ikastera, eta, han hasiera batean eta gero Donostian, 9 urte pasa nituen. Horrek esan nahi du udan etortzen nintzela Zarautza eta, beraz, mutil koskorretako Zarautz hori oportetarako tokia zen niretzat.

### Idazten hasi, erdaraz hasiko zinen, noski. Noiz?

13 urterekin erredakzio bat eskatzen didate, klaseko denei

eskatzen digute; irakaslea berria zen, eta gaia *el pescador de caña*. Idazten dut erredakzioa eta irakasleak, oso haserre, deitzen dit bere bulegora. Ez nintzen estudiante ona; aprobaten nuen, baina ez nintzen distiratsua. Irakaslea sinistuta dago hura nik ez dudala idatzi eta ea nondik atera dudana. Nik ezetz ba, hura nik idatzitakoa dela. Orduan behartzen nau bere gelan, beste gai zeharo differentea emanda idaztera, bera aurrean dela. Idazten ditut bi-hiru paragrafo eta konbentzitzen dut baietz, nikegina dela idazlana.

Gero, handik gutxira, bazen aldizkari bat gaztetxentzat *Jóvenes* izena zuena, eta han lehiaketa bat zegoen ipuinena, eta hamabost urterekin bidali nuen ipuin bat. Lehendabiziko saria eman zidaten. Hara non hasi nintzen ni idazle fama hartzen lagunen artean!

Joxemari Aranalde euskarako klaseak ematen hasi zitzaigun garaitsu hartan, eta euskaraz egiteko agindu zigun idazlana. Idazlana entregatu eta bi egunetara, nire lanak komentatzen, Aranaldek esan zuen guztien aurrean: *Bai, Lertxundi norbait izatera iritsiko da erdal letretan, baina ez euskal letretan, behintzat.*

### Orioko erreferentziak ugarriak dira zure liburuetan...

Norberak bere herrian bizi izan dituen haurtzarora eta hurrengo urteak, dena bat da. Baina 9-10 urterekin alde egin behar izan baduzu, haustura bat dago, eta haustura horrek behartzen zaitu beste begi batzuekin begiratzera haurtzarora. Orduan, askoz ere gehiago finkatzen dira oroitzapenak-eta. Nik, esate baterako, Zarauzko lekuak hobeto ezagutzen ditut Oriokoak baino, hemen bizi naitzelako hamar urte nituenetik. Baina finkatu memorian, besteak dira finkatuta geratu direnak. Ametsak ere gehiago egiten dut Orion, gure etxean, hango kaleetan, kofradiako eskolan... Zarauzkoetan baino, eta horrek zer bait



esan nahi du: hura geratu dela nire memorian finkatuta.

### Euskararen egoera nola ikusten duzu gaur egun Orion?

Ezin dut nik Oriori buruz gehiegi hitz egin; ez dut ezagutzen egoera. Nire txikitako Orion guardia zibilen seme-

alabek euskaraz ikasten zuten; baina euskararengana jarrera, frankismoaren bukaeran, ez zen oso garbia. Bigarren mailako hizkuntza zen euskara; nahiz eta mundu guztiak euskaraz egin, jendeak ez zion begiramen handirik, oro har. Lehendabiziko hauteskundeetan-eta ikusi



KARKARA

zen Orio ez zela oso herri abertzalea. Baina, gero, denboralaburrean, horiasko aldatu zen, diskurtsoan behinik behin, eta diskurtsoan aldatuzenean, ez dakit, gero, praktikan, ez ote den kontrakoa gertatu. Gaur, Orion, euskararen aurkako diskurtsorik inork ez du erabiliko, baina ez

dakit lehen baino gutxiago ez ote den hitz egiten. Beti gabiltza gazteen kontuekin eta abar, eta nahi nuke deskuidatuta egon, baina ikusten ari naizen arazorik handienetako bat da erabileran ez ote den erabat atzera egin nire belaunaldiko jendearen artean, 60 urteren buelta horretan.

## HAURTZAROKO ERAGINA

**“Literaturarekin egin dudana Orion egiten nuena izan da: batetik, besteenak irakurri eta, ondoren, zurea sortzea, eta beste aldetik, elementu guztiz ezberdinak lotu eta berri bat sortzea, erlazioak egitea”**

**“Amets askoz ere gehiago egiten dut Orion, gure etxean, hango kaleetan, kofradiako eskolan... Zarauzkoetan baino”**

## AMA IRAKURLEA

**“Etxean amak irakurzaletasun oso handia sartu zigun. Berak esaten zigun hau irakurri ezazu... eta gero hitz egiten genuen eta horrek asko eragin zidan. Uste dut nik ez nuela zaletasun hau izango amagatik izan ez balitz”**

## EUSKARA

**“Beti gabiltza gazteen kontuekin eta abar, eta nahi nuke deskuidatuta egon, baina ikusten ari naizen arazorik handienetako bat da erabileran ez ote den erabat atzera egin nire belaunaldiko jendearen artean, 60 urteren buelta horretan”**

## JAURLARITZA BERRIA

**“Sozialistek inoiz baino gehiago egon behar dute, obligazioz, euskararengandik hurbil. Beti egon dira aparte, eta orain hurbildu beharra daukate”**

## INDARKERIA

**“ETAren existentziak ez dio Euskal Herriaren etorkizunari onik ekarri. Garbi-garbi ikusten dudana kontua da hori: ez dugula aurreratu ETA dagoelako, alderantziz baizik”**

Hizkuntza hegemonikoak tokia irabazten ari dira. Hemen euskaraz asko egiten dela pentsatzen dugu; baina hasi kontuak ateratzen: baten bat kanpotik etortzen bada, gaztelaniaz dakiena, dena du aldeko: periodiko guztiak, piztu irratia, joan zinera, segi juzgadura edo udaletxera, jarri

telebista, joan denda batera eta hitz egin beren hizkuntzan... inon ez du arazorik izango.

Ni joaten banaiz, ordea, kioskoan gauza gutxi aurkituko dut, irratian eta telebistan berdin, zinean zer esanik ez... hizkuntza nagusiaren presentzia izugarria da.

### Jaurlaritzako agintari berrie- kin, zer espero?

Beldurrik ez dut; baina kezka, bai. Alde positiboari begira: inoiz premiarik sentitu ez duen, izan ez duen, giza multzo handi bat, gaur behartuta dago euskarara hurbiltzera, hartu duten konpromisoak eta aginteak horretara behartzen dituelako. Sozialistek inoiz baino gehiago egon behar dute, obligazioz, euskararengandik hurbil. Beti egon dira aparte, eta orain hurbildu beharra daukate. Nik badakit ez dutela egingo nik nahi dudana euskararako politika; baina iruditzen zait, objektiboki begiraturata, politikoki eta sozialki, euskararentzat mesedegarria izango den mugimendu bat egongo dela. Orain arte, gauza zegoen bezala, oso zaila zen jende multzo handi hori euskarara hurbiltzea; baina orain hurbildu egingo da: behartuta, baina hurbildu. Alde horretatik, ni baikorra naiz... lau urtez.

Bestalde, horrekin batera, orain arte egon direnek hausnartu egin beharko dute: erraza zen deskargatzea euskararen erantzunkizun guztia kulturaren edo euskararen alorrean, eta beste gainontzeko guztia aparte balego bezala utzi.

### Zuk idatzia da, Juan Priede hil zutenean, Euskal Herriaren arazoa arazo morala dela batez ere. Nola ikusten duzu euskal gatazka deitzen dugun hori?

Nik ez nuen Juan Priede bera ezagutzen. Gertatutakoa mingarriagoa izan zen niretzat Orion gertatu zelako, imajinatzen nuelako beste toki askotan errepikatu zen eskema berbera: herri batean herri hortako jendeak aukeratutako pertsona bat beste batek, herritar batek, hiltzen duela. Horrek adierazten duenarekin, konbiblezia minimorako ezintasun hori.

Beti iruditzen zait indarkeriaren erabilera ez dela justifikatzen politikoki, nahiz eta indarkeria hori arrazoiz politikoekin jantzi nahi izan –eta egia da Euskal Herriak badi-



#### MARI KARMEN ETA ANJEL ARRAUNEAN

Antxon Olariagak opari egin zien biei ondoko argazkian ikusten duzuen margolana.

Txalupan agertzen dira senar-emazteak arraun bana eskuetan aurrez aurre jarrita... zian?, bogan?

Anjelek kamiseta horia darama soinean eta Orioko eliza agertzen da haren atzean. Mari Karmenek, pamela dotorea buruan, Zarautz du hondoan.

Gustatu zitzaigun erretratua eta zuentzat ekarri dugu.

### BOST LIBURU, BERRIZ IRAKURTZEKO

Idazleak oso irakurle onak ere izaten dira eta Anjelen kasuan bereziki da egia aurrekoa, asko irakurri baitu txiki-txikitatik, liburuetan miatzen ibiltzeko harra amarengandik jaso eta gero. Besteek idatzitakoan bilatzen ditu bizitzaren aztarnak, berak berriz erabili eta besteei irakurtzen emateko... Bost liburu aukeratzeko eskatu diogu, berriz gustura irakurriko zituenak.

Stendhal nobelagilearen jarraitzaile amorratua da Anjel eta haren hizkera miresten du gauza guztien gainetik: *Hizkera zuzena, zehatza, erritmo handikoa du eta, batez ere, garbia, ezagutzen dudana prosarik gardenena; han ez dago anbigutasunik, zorrotz eta zuzen, plastizitate handiarekin adierazten du dena*. Hamabi aldiz irakurri omen du Gorria eta beltza (*Le rouge et le noir*), baina aurrean, udan, **Parmako kartusia** (*La chartreuse de Parme*) hartuko omen du berriz eta euskaraz irakurriko Jon Muñozen itzulpenen ederrean.

**Divina commedia**, Danterena, ere berriz hartu behar dituenen artean jarri du: *Bizitza guztia bertan, hantxe dagoelako*.

Nahiz eta oso konplikatu eta zaila izan, **Oihenarten**, XVII. mendeko euskal idazlearen poemetara ere bueltatuko da, haren aurkitzen duelako hainbeste maite duen hizkuntzaren musika: *Euskara oso behartua du, bortxatua, baina dena da erritmo eta musikaltasuna bila dabilelako, hitz motz eta erritmo handiz betetako poemak dira*.

Luzio Apuleioren, Kristo aurretik II. mendeko idazle latindarraren **Urrezko astoa** Anjelek berak du euskaratuta eta oso gustukoa du. *Zergatik? historiako lehendabiziko nobela da praktikan eta irakurtzeko plazer hutsa*.

Hiruzpalu urtez behin irakurtzen omen du Cervantesen **Kixotea**, eta hori izango da bosgarrena. Gaztelaniaz irakurtzeko, jakina: *Kixotean dena dago. Gainera, bentaja handia dauka liburuak; ez dakazu osorik irakurri beharrik, noiz behinka kapitulu bat irakurri, berdin da-eta non hasi*.

tuela arazo politikoak konpondu gabe daudenak-. Orduan, kalifikazioak, nire ustez behintzat, beste terreno batera eraman behar dira: terreno etikora.

Niri–nire burua kristautzat jotzen ez badut ere momentu honetan– senak esaten dit gizakiak asmatu behar dituela bideak, gauzak moldatze-ko eta zuzentzeko moduak, indarkeriarik gabe eta bestea bortxatu gabe.

Oso zaila izanik ere, eta nahiz eta bidegabekeria gora-

beherabatean bizi, beti sinistuta behar da beste bideak badaudela. Besteak beste, konbentziturata nagoelako indarkeriaren bideak, momentu batean soluzioa ekartzen badu ere, ez dakarrela inoiz soluzio erabatekorik, atzetik beste soka ekartzen duela beti.

Euskal Herriari begiraturata, uste dut ETArekin existentziak ez diola Euskal Herriaren etorkizunari onik ekarri. Garbi-garbi ikusten dudana kontua da hori: ez dugula

aurreratu ETA dagoelako, alderantziz baizik. Gertatzen ari zaizkigun gauza asko eta faktura hau, herri gisa, ordaindu beharko dugu oraindik. Juan Garziaren esaldia gogorra ekarriko dut (*Bartleby izkiri-riatzailea* liburuaren sarreran dagoela uste dut): Garaiz esaten ez diren egiak –eta indarkeriaren aurrean ez dugu jakin garaiz gure egia esaten– gero denbora behar izaten dute lekua hartzen, eta, gehienetan, ez dute jada tokirik izaten.



# KARKARA

10 urte

## Zeinen gustura saltsan...

**K**ARKARAREN 20. urteurrena dela eta, KARKARAN partaide izana izanik, bururatzen zaidana idazteko aukera eskaintzen didate KARKARAKOek...

Urte batzuk KARKARAN idatzi gabe eta, ene! nagitua antzematen dut nire burua, ez dira hitzak nahi bezain ugari etortzen burura, KARKARAN hasi nintzenean bezalaxe, gainera, ahalik eta esamolde egokiena aukeratu nahi izaten genuen egoerazehatzak adierazteko -zenbat buelta ematen nion hitz bati egokiena aukeratu nuela ziurtatu arte!. Baina jarri nintzen, hartu nion neurria gauzari.

KARKARAN Aiako berriak, erreportajeak eta elkarrizketa argitaratzea zen...

KARKARAKO elkarrizketatuei haien erantzunak grabatzea gustuko lana nuen, beste argitalpen guztiek bezala, KARKARAKO duen zentsura edo tiraniagatik ez balitz, hots, hitz kopuru zehatz baten gilotina,



**GARBIÑE AZPIROZ**  
KARKARAKO LANGILE OHIA

ahaztua dut zenbat hitzetan laburbildu behar izaten zen elkarrizketa. Nolako malabarismoak egiten genituen ordubeteko edota bi orduko... elkarrizketak orrialdetxo batean moldatzeko.

Zeinen gustura saltsan... Aitortu behar dut KARKARAN gustuko nuen lana herritarrei beren berezitasun puntua bilatzea izaten zela, bizitza

arrunta duenari garrantzia ematea bere lanbideagatik, *hobbyengatik* edota pentsakeragatik. Herritar xumeei behingoagatik KARKARAN toki bat egitea, eskerrak elkarrizketatu guztiei KARKARA. Eskerrak KARKARAN elkarrizketatuak izango zireten guztiei, zuek ere egingo baituzue KARKARA.

Gogoan dut nire KARKARAKO lehen elkarrizketa. Joxe Manterola *Sarrola* zenari egin. Luze jo zuen elkarrizketak. Haren hitz jarria eta esamoldeak... Orduz geroztik niretzat erronka bat bihurtu zen elkarrizketen grabazioak testu idatzira pasatzea ahozko hizkerak duen esentzia alde batera utzi gabe: lortu ote nuen? Ahaleginaren faltarik ez zen izan, behinik behin.

Asko eman zidan KARKARAKO. Euskarazko idatziak txukun zaintzen erakutsi zidan. Herritar arruntei hurbiltzeko aukera eman zidan. KARKARARI esker eta elkarrizketatuak

izan direnei esker herria hobeto ezagutzeko aukera eskaini zidaten; ikuspegi sozial, kultural, etnografikoa aberasten eta zabaltzen lagundu zidaten.

Eskerrak orduko KARKARA egiten eta egiten laguntzen zenuten guztioi, zuek izan zireten nire irakasleak, laguntzaileak, zuzentzaileak, lankideak, zuek zireten eta zarete KARKARA: Ana G. de Txabarri, Jabier Zabaleta eta Pat Cowie, Iñaki Iturain besarkadabat, Miren Etxeberriamuxu bat; Rikardo eta abar... KARKARA egin, egiten eta egingo duzuen guztiei bejondeizue!

Zorionak KARKARA!

**"Gustuko nuen lana herritar bakoitzari bere berezitasun puntua bilatzea izaten zen: garrantzia ematea lanbideagatik, hobbyengatik edota pentsakeragatik"**

Carmen eta Txomin  
ARRABEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Automóviles  
ZARAUZ

OTROEN ZERBITZU OFIZIALA

otzailu berriak  
eta us berriak  
salga

ZARAUZ. Tf. 943 13 13 58

ARISTERRAZU  
jatebxea

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

Klikladenda - Uma arropa

*argine*

www.lasonet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARJEN TXARTELAREKIN

**ARKAITZ**  
Taberna

Pintxoak,  
plater konbinaluak  
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4  
Tlf.: 943 83 15 57

**ARIDATA** modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

## ADARRETATIK HELDUTA

*Ereriz ikasten da oinez*

Azenarioa aldatzen du baserritarrak sorotan. Untxiak begiz jotzen du; dardarka itxitura pasatzen du eta azenarioa hartuta, gordelekura doa, saria dastatzera. Bat-batean, hego handiko arranoa datorkio erasoan. Korrika hasi eta ihes egitea lortzen du. Iluntzean, gaueko ehiztari azkarrenak, hontzak, untxia akabatu eta jan egiten du haren bi umeekin batera. Horrelakoxea da bizitza, arriskuz josia, eta gizakia ere ez dago horietatik salbu, ez horixe.

Ia egunero joaten gara mendira eta, oraingoan, normalean hain urruti ikusten dugun arrisku hori gertutik bizitzea tokatu zait. Ttipitapa, inguruko bazter zoragarriari begira genbiltzan eta naturak gure aurrean lagatuko itxura oneko jaki bat begi bistan genuenean, haren bueltara hurbiltzen ginen; begiratu, usaindu, hartu eta, miazkatu ondoren, probatu. Makina bat aldiz esan izan diogu elkarriz *ze ostiya dek hori?* eta baten batek *etzekit, mikatza ziozk bai, baina etziot tankerik hartzen.*

Egia esan, mendi bueltako momenturik gozoenak izaten ziren probatutakoa garratza izanda ere; ausartak sentitzen ginen. Baina, ibilian dabilenari gertatu egiten zaizkio, gutxien espero duenean, suarekin dabilena erre egiten den bezalaxe.

Orain dela hilabete pasatxo, san Isidro egunez, pasa



IBON BERSALUZE  
LANGILEA

**Baina ibilian dabilenari gertatzen zaio, espero ez duenean, suarekin dabilena erre egiten den bezalaxe**

**Zer izan zitekeen buruan bueltak eman eta gero, batek ahora eraman zuen: hara, jan dik horrek**

zen jarraian kontatzera noakizuen ezbeharrak: Ilunabarrenean, Pagoeteko baso eder horietan, aparteko une horietako baten aurrean aurkitu

ginen. Guztion arreta harraipatu zuen perretxiku baten jiran bildu ginen. Arrautza itxurako ipurdi borobil batek ateratzen zen; enbor zuria zuen eta txapel gaina borobila eta horixka. Inoiz ikusi gabeko espeziea zen guretzat, baina sekula ahaztuko ez zaiguna. Zer izan zitekeen hausnartuta, batek ahora eraman zuen. Errietarik egin gabe *Hara, begiraiok! horrek jan dik* esan eta aurrera egin genuen. Ostirala zen, egun ederra eta asteburu bezperak dakarren zirrara genuen soinean.

Astlehenean lagun bat gutxiago ginen mendira abiatzerakoan, harridura aurpegiz Joxek ekarri zidan albisteak: laguna ospitalean zegoela larri eta ez zekitela garbi zerkeraman zuen hara. Lagunaren bikotekideak eman zion izan zitekeenaren pista medikuari: ostiralean jandako perretxiku hilgarria. Asteartean jakin genuen guk hori. Pozoiak bere lana egin zuen ordurako.

Medikuak erabat harrituta zeuden perretxikoak ordu gutxitan egindako *lanarekin*, hainbat organo baitzituen kaltetuta, tartean, trasplantatu behar izan dioten gibela. Egund bere onera bueltatzeko borrokan jarraitzen du.

Lehen ere gertatu dira halakoak, gertatzen dira eta gertatuko dira aurrerantzean ere; gizakia baita tranpa berean birritan erortzen den bizidun bakarra.

## NIRE HONETAN

*Ez dago atsedenerik*

Urte guztia lanean edo ikasten pasadugu, nekatuta gaude, udan herri guztietan jaiak dira... normala da burua beste gauza batzuetan jartzera. Baina ez pentsa herri guztia geldituko duenik udako oporraldiak; batzuk martxan jarraituko dugu eta. Martxan ekimenak sortzen eta antolatzen, martxan irudimena lantzen, martxan gizartea aldatzeko makinatzen, martxan autogestioa bultzatzen... Azken finean: Martxan! Gaztetxea eraiki behar badugu ez baitago atsedenerako betarik.

Gaztetxea eraikitzea ez da lau horma altzatzea, ez eta Udalarik Etxeluzea konpontzeko eskatzea. Gure aurpegi politagatik, ezta? Bada ez, ez dugu behar inoren oparirik. Gaztetxea nahi badugu, demostratu egin behar dugula, iazko Gazte Festetan eta azken bi urtetako sanikolasetan egin genuen bezalaxe, zertarako gai garen erakutsi behar dugulako. Baina ez jai giroan bakarrik, unean uneko aldarrikapenetan ere denon partaidetza behar da.

Nahiago duzula egund osoan hondartzan etzan edo lokaleko sofan porroak erretzen egund? Nik ez dizut esango zer egin, zure aukerak da, baina nik gaztetxea nahi dut Orion. Eta zuk?

MIKEL ARANZABAL

**TAILER MEKANIKOA**  
**MANTEROLA S/L**  
TIGORREAK - BALBUAK

Santiago eztoa - 18 postakutira  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: [tmmanterola@euskalnet.net](mailto:tmmanterola@euskalnet.net)  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

AENOR kalitate ziurtagiriduna

FISIOTERAPIA - Garbaitz Arriegi eta Natalia Wierzbien  
NUTRIZIONISTA - Garbaitz Arriegi

**sinergia** investigación fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

## MOILA BAZTERRETIK

# Oporren xarma



AIORA LARRAÑAGA

**I**a zortzi hilabete iraun duen negua bukatu dela dirudi, horrela dio behintzat egutegiak; baita arratsaldetan ikastolara joan beharrik ez duten haurren irribarrekerere. Izan ere, udako oporrak hartzea bezalakorik ez dago.

Horretaz gain, gainean ditugu jada San Pedro jaiak eta udako egun eguzkitsuak eta beroak –horrela izatea espero dut, behintzat–. Eta, urtero bezala sanpedroen atarian ikasturte honetako azken zenbakia kaleratuko du KARKARAK ere.

Bitxia da, aspalditik ematen baitit niri ikasturteko azken KARKARAK halako zirra-za berezia.

Umea nintzenean ikasturtea bukatu zela eta hiru hilabete luze aurretik nituela ziurtatzen zidan; zahartxeagoa nintzenean, berriz, udan festarik festa eta parrandaz parranda ibiltzeko garaia zela; eta orain, berriz, hilabete eskas barru urtean osoan itxaron ditudan oporrak iritsiko direla abisatu dit.

Hau irakurtzen ari zarenen

asko ere oporretan pentsatzen ariko zaretela badakit. Agian ez gara inora joango oporretara, ala bai eta ez dugu gauza berezirik egingo... ala agian bai. Baina, gehienok izango dugu, ahal dugun neurrian, nahi duguna egiteko aukera. Hori da, eta ez besterik, oporren xarma.

Urte osoan nahi duguna egiteko aukera izango bage- nu ez genituzkeen oporrak apreziatuko; gehiago esango dut, ez genukeen oporrik izango, beti oporretan izango ginatekeenez hortaz ere asper- asper eginda izango ginake- en eta. Behin batean horrela esan zidan erretiratuta urte- ak daramatzen herritar batek: berari ez zitzaizkiola oporrak batere inporta, beti jai zuenez, nazka-nazka eginda zegoela eta.

**Behin horrela esan zidan erretiratuta urteak daramatzen herritar batek, berari ez zitzaizkiola oporrak batere inporta, beti jai zuenez, nazka-nazka eginda zegoela eta**

Dena dela, oporretan gustura ibiltzea opa dizuet denoi. Ea irailan ere hemen elkarren berri izaten dugun.

Ondo izan eta datorren ikasturtera arte.

**URANGA**  
burindegia  
Opari, menaje eta erremintak  
Tex.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

**SOLOZABAL**  
autoeskola  
  
Eusko Gudari, 30-1. ezk  
telef: 943 83 08 12

 **Sagasti**  
LEIHOAK  
ROBERTO SAGASTI  
Tf: 605 732 913  
Faxa: 943 020 213  
ventanasagasti@euskalnet.net  
Bizkaia kalea, 20-1 B  
20600 Zarautz

**TANATORIO ZARAUTZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA  
**Hileta eta zerbitzu orokorrak**  
\* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
\* Aldoroko zerbitzua  
\* Belatorio gelak  
\* Karriak, eskelak, tramitazioak...  
Araba kalea, 35 Zarautz  
Tel: 943 83 48 37 / Fax: 943 83 49 43  
e-mail: harragil@harragil.net

  
JUAN PEDRO FERNANDEZ OSA  
10292 ZENBAKIDUN PSIKOLOGO KOLEGIATUAN  
ANILKULARRITZA BIRNTE ARTEKO GATZAKETAN  
PRESTAKUNTZA TRIBUNALAREN SOZIALETAN  
816 96 25 47  
sefok@euzko

**Orioko**  
Ogia  
  
OPI. OKINDEGIA  
Frontal ordoan  
Tfnoa: 943 83 01 89

**PERTSIANAK**  
A  
K  
O  
M  
A  
Z  
Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...  
Tel: 943 1329 01 Mugikorra 600 70 52 27

  
**Joseba Ostolaza**  
TAXIA  
24 ORDUKO ZERBITZUA  
Tf: 646 510 388  
  
Baxoalde, 9  
ORIO

**EGUN ZAITEZ KARKARAKIDE**

**KARKARA**  
20 urte

**KARKARAKide izan nahi dut:** KARKARA aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago KARKARARI urteko 30 euroko laguntza emareko.

Izen deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Posta kodea: ..... Tel.: .....

Kontu korronteko zenbakia:

**egunero-egunero,  
zuekin...**

**www.karkara.com**

*Konektatuai!*

ardoak, urdaikak, gaztak,  
kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino  
eramaten ditugu**

**KARKARA**

943 83 09 84

aita lertxundi, 36  
ORIO

**LEIHOLAN**

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

<b>Fabrika</b> Agote Industrialdea Agote, 9 30740 Zaros	<b>Erakusketak</b> San Pederako, 1. 20800 Zaros	<b>Alto Lertxundi, 21.</b> 20810 Orio Tel: 943 09 40 24
--	---	---

**zkue**

Tf: 943 13 04 38

**THE ACADEMY OF ENGLISH**

*A&E*

**uranga**  
autozerbitzua

**Aliprox**

Erakle Galarri Jauregi 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

**ACTIVA** **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

**Juan Albizu**

Abeasari, 6 - Tel/Fax: 943 83 12 49  
20809 ORIO

**A&E**  
The Academy of English

Justo kalea 3, Zaros | Ibai Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44  
943 83 51 91

**AMILIBIA**  
ONTZIOLEK, S. L.

karol pomaia proiektu eta instalazioak

gri malako lekuetatara urrun-urrunak

Olasnagaegia auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

**ALTXERRI**

Karta eraberritua

Asteburuan, eguerdi eta gauean,  
menu bereziak

943830762

*edukitegia*

**ANTILLA**  
*jakitegia*

Antillako kalea, 2 - Tel: 943 83 24 00

**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidasak S.L.*

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99



## Zezenketa 86ko sanpedroetan

**S**an Pedro eguna zen, 1986ko ekainaren 29a. Udalak Orioko lehen zezenketa antolatu zuen. Ez zen inolako *fiesta nacional* izan, eta Orioko erara moldatu ziren torero, banderillero eta abarrak. Argedaseko Adolfo la Huerta ganaduzaleari txekor bat erosi eta Pepe Moreno gonbidatu zuten zezenketa egitera.

Argazkian ikus daitekenez euria barra-

barra ari zuen, ikusle guztiak aterkarekin ageri dira eta.

Txekorra ez zuten hil, eta Jesus M. Ferrin zena izan zen zezenari banderilla jartzea lortu zuen bakarra. Ez euriak ezta egun hartan izan zen bonba abisuak ez zuten festa zapuztu.

Argazkikoak hauexek dira: Zaldi gainean, Martin Arruti; zaldiaren inguruan, zuriz jantzita, Luis M. Uranga eta Jesus M.

Atorrasagasti -zaldiak tapatzen du-; eta atzean eskubitara, kapotea eskuetan, Pepe Moreno, egun hartako toreroa eta, beste aldean, bi laguntzaile.

ARGAZKIA: ANJEL ESNAL  
INFORMAZIOA: PEPE MORENO

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

# KARKARA

Ue apaindegia  
**MARIJO**  
Neska eta mutilentzat  
Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

arrozlagia  
**MIRANDA**  
Jaso n. 100004  
berrin eta berri eskatzen...  
behar diren arto lanak  
egingo dituztegu  
Urdaneta bidea, 1 - 460 42 32 70 - ZARAUTZ

Kalua Loroalotza  
Luzurak Loroalotza  
Keru lorealotza 647026489  
lorategi eta torrazen aldetan eta  
manbasa, ureztatze sisteman eta  
kimaketa espezializatuenak.

## KRITIKA



Salatxon ditu ikusteko Alain Montillak fotoak ekainaren 26a arte.

KARKARA

## Bazkal osteko kafetxoa sobera dago

**L**au puntuetan bilduko nuke kritika egingo diot Alain Montilla Bello argazkilariak Salatxo tabernan jarri duen erakusketari: paisaia, koloreak, postalak eta kafetxoa.

Orioko paisaiaren originaltasuna azpimarratzekoa da: orain arte ez nuen ikusi inoiz herriaren irudia harrizko leiho horietako batetik barna eta benetan ideia ona iruditu zait, polita. Baita ere momentu atsegina adierazten du umeak jolasean ari diren argazkian, hiriburu horretako hondartzaren lan-

broaren artean. Mementu egokia argazki egokia ateratzeko.

Koloreak deigarriak dira: Photoshoparekin egokitutako argazkiak oso artistikoak iruditu zaizkit, kontraste oso deigarriak egiten ditu. Argazki zuri-beltz bati, kolore tono argiak sartu izana. Oso originala iruditu zait, baita ere, txinpartek eragindako kolore gorri bizi hori nola zatitzen duen argazkia 3tan.

Txillidaren *Haizearen orrazia* eta obrak postalak iruditzen zaizkit: argazki politak bai, baina, Donostiako

hiriaren postal tipiko horietakoak direla uste dut. Agian, bere intentzioa hori izan zen. Batek daki.

Eta, bukatzeko, azken argazki bat aipatu behar dut: Kafetxoaren argazkia. Instantanea atsegina da, mementu goxoa adierazten du, leku egokia, garai egokia, kafe eder bat hartzeko, baina erakusketa honetan sobera dagoela iruditzen zait argazki hori, ez datorrela Paisaian eta Kolorean ikusitakoarekin bat.

IBAN EGIGUREN

## IKASLEAK IDAZLE



ESTELA ATORRASAGASTI | DBHKO 3. MAILA

## Hondartzaren egoera

**G**aur egungo hondartza eta orain dela hamar urtekoa oso desberdinak dira, orain hondartzaren inguruko parajea politago dagoela esan genezake; hotela, paseoa, parkinga... direla eta. Baina hondartza, benetan, ezin dugu oso ongi dagoenik esan. Izan ere, lehen ez bezala, hondartzara sartzera ezin dugu sandalia, txankleta edo oinetakorik kendu, hanka azpian mina ematen baitute harri txiki horiek, orain hondarra direnak, alegia. Hori bakarrik ez, ordea, uretan, kontu handiz ibili behar izaten dugu, *orillera* handiak egoten baitira itsaso eta hondartzaren mugan, horrek olatu handiagoak lehertzea eragiten baitu. Hori dena kontuan hartuta, ez dut uste esan genezakeenik oraingo hondartza lehengo baino hobe denik.

**Allianz**

**Marigre Zaldua**  
aseguru agentea

Bil Ondu, 10 behe-ona  
telefonoa: 943 13 47 60  
faxa: 943 83 57 52  
e-maila: zaldua.delacruz.pa@allianz.es

**LURDES**  
ARRAZOZEM

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

**LOBETXU** JATEKIA

Eusko Gudari, 18 - Tel. 943 83 00 07

*Lizaso*  
dekorazioa

Eusko Gudari, 45  
Tel. 943 83 07 84 - Faxa: 943 83 81 10

## HANDIK ETA HEMENDIK

“

“40 urtetik aurrera daukagun emakumeentzat paper gutxi dago. Eskertuko nuke nere adineko emakume baten papera ematea. Beti zaharragoenak jokatzten ditut.”

## IÑAKE IRASTORZA

Aktorea  
Euskadi Irratia  
2009/06/11

“Esan behar da Oraia Perez eta Ane Barandiaran jaurtizaile gazteek oso lan ona egin zutela. Ohiko titularrek, berriz, animatzaile moduan jardun zuten.”

ELENA  
ETXEBERRIA

OBBko presidentea  
Hitza  
2009/06/10

## OSPAKIZUNA



## 50 urte zoriontsu

M. Carmen Gaztañazpi eta Agustin Arratibel senar-emazteak dituzue argazkikoak eta berrogeita hamargarren urtea dute aurten elkarrekin.

Ekainaren 14an ospatu zuten urtemuga hori familia osoarekin. Goizean, Besasaingo Olaberriko elizan egin zuten meza eta, gero, Arrueta jatetxean bazkaldu zuten.

Zorionak bikote!

## ZORIONAK!



## Udan oporrak ditugunoi

Zenbat hitz egin ote dugu azken ikasturtean krisiaz? KARKARAKO gutun eta iritzi artikuluetan besterik ez zen aipatzen, aldi batean behintzat.

Orioko eta Aiako herritar askok eta askok, beste herrietakoek bezala, ikaragarri sufritu dugu ditzosozko krisia dela eta. Ugari dira lanik gabe kalean geratu direnak eta beste askok ERE famatua dute mehatsu.

Ez dakigu uda ondoren kontua zertan izango den.

Beraz, zaila bada ere, saiatu oporretan penak ahaztutzen eta gozatu, merezi du eta.

Eutsi goiari!

**Nahikari**

HAUR BENDA

Amantzaile Kalea, 35  
20100 - Ormaiztegui  
Tel: 943 83 36 30  
www.nahikari.es

**LUXARBE**  
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denotarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoak: 949 59 59 00

**NATURISTA**  
**KONTSULTA ORION**

- Tratamendu Naturalak  
- Oreka energetikoa

- Bachen Loreak  
- Reiki

**Irkus Fernandez Huegun**  
Naturopation Diplomatuak

Tel: 655 726 291  
email: oreka.irkus@gmail.com

ORAIN DELA 25 URTE

# Ostegunetik igandera sanpedroak disfrutatzen

**E** kainaren 28an, ostegunarekin, arratsaldeko 19:00etan hasi ziren 84ko sanpedroak erraldioen eta buruhaundien kalejirarekin. Jaietan, artisau eta eskolen erakusketak ere izan ziren ikusgai eta orain egiten den Orio Loretan txapelketaren antzekoa ere izan zen, Leiho Loratu izenarekin.

Ostiralean, San Pedro egunean, 9:00etako kaleratu ziren txistulariak, 10:30eko meza baino lehen. 12:00etan esku-soinu saioa, 17:00etan futbito partida... eta, ondoren, dantzaldia izan zuten. Eguna bukatzeko, gaueko ordu txikietan sokamuturra egin zen.

Larunbatean, 9:30ean hasi zen jai eguna, erraldoi eta buruhandiekin. 10:00etan sokamuturra egin zuten, 12:00etan, berriz, herri kirolak izan zituzten, horien artean Ostolaza eta Zelai harri jasotzaileen ikustaldi bikaina. 12:30ean *goitibeheren* jaitsiera izan zen eta, 19:00etan, kaleak girotzeko txaranga eta dantza. Ondoren, zezena eta eguna amaitzeko, 23:00etan, mozorro lehiaketako sari banaketa egin zen.

Azken festa egunean, igandean, 9:00etan txistularien kalejira izan zen. Goizeko 9:30ean krosa eta 12:00etan sagardo eta bakailao txapelketak egin zituzten. 14:00etan lagun arteko bazkaria izan zuten herriko zaharrenek. Arratsaldetako 16:30ean sas-

## 1984 EKAINA

**Jaiak ekainaren 28tik uztailak 1era izan zituzten: herri kirolak San Pedro egunean izan ziren, harrijasotzaileak tartean zirela**

**Arin eta Embil altzari fabrian sutea izan zen, baina ez zuen ondorio larririk izan, zorionez**

**Alejandro Oridenek Martiartuko idi proba irabazi zuen sanantonioetan**

kibalo partida jokatu zuten eta, ondoren, 18:00etan, pilotan aritu ziren. Kemen taldearen dantzaldiarekin bukatu ziren sanpedroak.

### SUTEA LANTEGI BATEAN

Ekainaren 6an, Arin eta Embil altzari fabrian ustegabeko sutea hasi zen goizeko 11:00etan, hautsa eta egur kixkurra kentzeko lantegian erabiltzen diren makina automatikoetan. Zorionez, hondakin horiek eraikuntzako terrazan zeuden, eta ez zen galera handiegirik izan. Donostiako suhiltzaleak etorri ziren sua itzaltzera eta eguerdiko ordu baterako bukatua zuten lana.

### IDI PROBA

Ekainaren 13an, San Antonio egunean, Martiartun jokatu zen pisu askeko idi probaren garaile izan zen Alejandro Oriden. Parte hartu zuen lehenengo idi parean Oridenena izan zen eta idi handiekin aritu zen. Beste hiru aurkari izan zituen Oridenek, baina berak egin zuen markarik onena, hasi eta hamar minutura 18 iltze eginak baitzituen eta hogeitamar minutuko jardunaldian, berrogeita hamar iltzeko markarekin amaitu zuen. Proba ederra egin zuen oriotarrak *Leon* eta *Ikentza* idiekin.

### ARRAUNA

Ekainaren 30ean, Gurutze Gorriaren aldeko estropadarekin ireki zen arraun denboraldia. Kantauriko txoko guztietatik etorritako zazpi taldek hartu zuten parte eta horien artean zegoen Oriokoa.

### JAIOTAKOAK

- Uxue Olaskoaga Etxeberria, Orion, ekainaren 10ean.
- Josune Genoba Vilches, Orion, ekainaren 7an.
- Alex Kaperotxipi Curiel, Orion, maiatzaren 30ean.

### EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik egon.

### HILDAKOAK

- Jose Manuel Azkue Iratzusta, Aian, ekainaren 2an. 61 urte.
- Martzelino Peña Manteola, Orion, ekainaren 6an. 86 urte.

Eskela edo urteurrenko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:  
943 83 15 27



**KOLON TXIKI**  
Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**iñaki argazkiak caperochipi**  
ezkontzeko asmorik bai?  
www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**Joana Murgiondo**  
Aseguru-agerilea  
ASEGURUAK  
Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**UTZIAR**  
kirolak  
Tel. 943 83 31 03



EGOITZ, EKHIÑE ETA JOSEBA | ERRAUSTEGIAREN AURKAKO PLATAFORMAKO KIDEAK

# “20 km inguruan izango dira kalteak; Orion ere bai, beraz”

**Erraustegiaren aurkako plataforma sortu berria da herrian. Bertako kide dira Egoitz Eizagirre, Ekhiñe Saizar eta Joseba Oliden.**

**Errausketaren inguruko kez-  
kak elkartu al zaituzte?**

Asteak generamatzen lagun artean elkartzen gine-  
nean erraustegiaz hizketan  
eta kezka bera genuela ikusi-  
ta, lanean hasi beharra zego-  
ela konturatu ginen.

Bestalde, Usurbilen atez  
ateko zabor bilketa martxan  
jarri zenean eta inguruko  
herrietan ere lanean ari zire-  
la ikusita, Orion ere mugitze-  
ko garaia bazela iruditu zi-  
tzaigun; are gehiago, erraus-  
tegia etxe alboan jarri nahi  
digutela jakinda.

**Usurbildarrek egindako  
bideari jarraitu al diozue?**

Ez. Gure kabuz hasi ginen  
bilerak egiten. Horrez gain,  
San Markos inguruko herri  
guztietan daude herri plata-  
formak eta horien ordezkariak  
hilean bitan Gipuzkoako  
Errausketaren Aurkako Koor-  
dinadorearekin biltzen dira,  
Zubietan. Hara joanginen tal-  
deko bizpahiru lagun, infor-  
mazio bila: hasteko irizpide-  
ak jasotzera... Gero lanera!

**Zein helburu jarri dituzue?**

Zaborren kudeaketa ego-  
kia lortzea da helburu nagu-  
sia. Erraustegia kanpaina hau  
guztia bultzarazi duena izan  
da, osasun, ekologia... arloet-  
an sortzen dituen kalteak  
izugarriak baitira. Gainera,  
egungo sistema ez da erraus-  
tegiarekin bateragarria, birzi-  
klatzen ditugun plastikoa eta  
papera behar baititu erre-  
gaitzat zaborra erretzeko.

Azken batean, erraustegia  
heriotza eragiten duen iru-  
zur hutsa da. Zaborraren %20



Sinadurak biltzen dabilta hirurak plataformako beste kideekin.

KARKARA

**Lehen zeregina  
jendeari lanean ari  
garela jakinaraztea  
da; plataforma  
badela kaleratu eta  
erraustegia zer den  
azaltzea**

birziklatzen dugun garaiotan,  
%77 berrerabiltzea lortu da  
Usurbilen, atez ateko bilke-  
tarekin. Lapatx zabortegira  
konpostazera eramaten den  
gai organikoaren purutasuna  
%97koa da, gainera. Horixe da  
guk nahi dugun alternatiba  
ere.

**Lanak egiteko  
baimenik ez duten  
arren, makinek  
lekua hartua dute;  
beraz laster hasiko  
dira Zubietan  
erraustegia egiten**

**Azaliezaguzue atez ateko bil-  
keta nolakoa den.**

Egunero, alde z aurretik  
erabakitako zaborra laga  
behar izaten da ezkaratzean,  
bizilagun bakoitzak duen leku  
propioan. Organikoa astean  
hirutan jasotzen da; beira eta  
plastikoa behin; papera bitan;

eta painalak, konpresak...  
egunero.

**Zer egingo duzue Orion ere  
abian jar dadin?**

Lehen zeregina jendeari  
lanean ari garela jakinaraztea  
da; plataforma badela kaleratu  
eta erraustegia zer den azal-  
tzea: zein kalte eragiten  
dituen, zergatik ez dugun nahi  
eta zein alternatiba ditugun.  
Herrietarak informatu behar  
ditugu eta autokritika egitea  
ere beharrezkoa iruditzen zai-  
gu; azken batean, erraustegia  
egitera badoaz guk utzi egin  
diegulako da.

Kanpaina informatiboak  
ere egingo ditugu; ikastetxe-  
etan ere izango gara erraus-  
tegiei buruzko informazioa  
zabaltzen; uda ere badator, eta  
hondartza inguruan zerbait  
egin nahi genuke, bisuala,  
atentzioa deituko duena.

Britainia Handiko lege  
baten arabera, erraustegia-  
ren inguruan, 20 km-ko erra-  
dioan, ezin da ez laborerik  
landatu ezta animaliarik hazi  
ere.

Oriotarrok, Zubietaren  
kasuan, 20 km-ko erradio  
horren barruan gaude.

Bestalde, hondakinen lege  
berri bat –erraustegia bertan  
behera utzi eta atez ateko bil-  
ketaren alde– Euskadiko Par-  
lamentura eraman ahal iza-  
teko sinadurak biltzen ari gara.

**Noiz dira erraustegia egiten  
hastekoak?**

Lanak egiteko baimenik  
ez duten arren, makinek lekua  
hartua dute, dagoeneko; beraz  
laster hasiko dira lurra pres-  
tatzen Zubietan. Egun hori  
iristean, mendi martxa egin-  
go da Zubietara. Asteburuan  
izango da eta kartelen bidez  
jakinaziko dugu ibilbidea nola  
egingo dugun oriotarrok. Adi,  
beraz!



**MUSIKA**

- Ekainaren 19an, gitarra elektriko entzunaldia. 17:00etan, Danbolin musika eskolan.
- Ekainaren 19an, kantu entzunaldia. 19:00etan kultur etxean.
- Ekainaren 19an, Azkaiter Pelox bakarlariaren kontzertu akustikoa. 22:30ean Zarauzko Arranon.
- Uztailaren 18an, Benito Lertxundiren kontzertua, ikastolak antolatuta. 22:00etan kiroldegian.

**KARKARAK 20 URTE**

- Ekainaren 19an, Patxi Zubizarretaren *Hamar mezu eta dei bat* hitzaldi musikatua. 19:00etan, Udaletxeko Udalbatzarraren aretoan, KARKARAK antolatuta.
- Uztailaren 3an, Giranaiz talde oriotarra. 19:00etan kultur etxean, KARKARAK antolatuta.

**ANIZTASUNAREN JAIA**

- Ekainaren 21ean, 11:00etan, Orioko nahiz kanpoko nesken arteko futbol partida eta, 12:00etan, Orioko gizonezko beterranoen eta etorri berrien artekoa.
- Ekainaren 21ean, 14:00etan, lagun arteko bazkaria, kiroldegiko tabernan.

**Jai egin, kulturaz blai!**

Ekainaren 20an, Kultur Aniztasun jaiaren egun nagusia ospatuko da Orion. 11:00etatik 22:00etara 5 kulturaren erakustokiak jarriko dira plazan eta, horretaz gain, egun osoan ikuskizunak ere izango dira: 13:00etan, *Capoeira*; 18:30ean, Senelgalgo perkusio erritmoak; 18:45ean, Nikaraguako dantzak; 19:00etan, Vivencias; 20:00etan Harribil eta Errikotxia; eta 20:45ean, *Kubatá* taldea.

**DANTZA**

- Ekainaren 23an, Harribil dantza taldearen San Juan gaueko dantza emanaldia.

**ZINEA HONDARTZAN**

- Uztailaren 11n eta 25ean, eta abuztuaren 1ean filma bana emango da 22:00etan.

**BILERAK**

- Astearteetan eta ostegunetan, 19:00etan, OKK-ko asanblada irekiak, Kosta Tailerrean. Gaia: Gaztetxea. Uztailaren 2an, 2. Gazte Festak antolatzeko koadrilen arteko bilera. 19:30ean, Kosta Tailerrean

- Ekainaren 22an, kastolaren eraikin berriaren inguruko ospakizunen bilera irekia. 19:00etan kultur etxean.

**ERAKUSKETAK**

- Ekainaren 26a arte, Alain Montilla Belloren argazki erakusketa. Salatxo tabernan.
- Ekainaren 27tik 30era, Ostargi elkartearen erakusketa. Kultur etxean.
- Uztailaren 6tik 30era, Jose Ramon Salsamendiren margolanak. Kultur etxean.

**UDAKO ORDUTEGIA**

- Ekainaren 22tik uztailaren 31ra goizez bakarrik irekiko da kultur etxea, 9:00etatik 13:00etara. Abuztuaren itxita egongo da.
- Irailaren 15a arte, egunero irekiko da turismo bulegoa. Astelehenetik larunbatera, goizez (10:00-14:00) eta arratsaldez (16:00-20:00); igandetan, goizez bakarrik.

**ABENTURA KIROLA**

- Uztailaren 6tik 9ra Jacara irteera Talai Mendik antolatuta.

**ESTROPADA**

- Orioko bandera jokatuiko da TKE liga barruan abuztuaren 30ean, 12:00etan herriko barraren aurrean.

**AZOKA****Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com). Merke asko, gainera, doa-ko zerbitzua baita gurea.

**ALOKAIRUA**

- Edozein negozio zabaltzeko lokala alokagai Orion, Eusko Gudari kalearen erdi erdian. Informazio gehiago: 943 83 09 29 (Pilar).

- Pertsona baten bila nabil, pisua konpartitzeko Orion. Tf: 659 73 40 01.

**SALGAI**

- Volkswagen Golf autoa salgai, 1991. urtekoa. Tf: 630 77 88 07.
- Sagarminak (makatz basatiak) saltzen dira. Tf: 662 39 08 38. Felix.
- Mercedes Class E autoa salgai. 2003. urtekoa, 89.000 km eta ondo zaindutakoa. Tf: 647 10 16 46.
- Hiru ateko Peugeot 206 autoa salgai. 10 urtekoa, 144.000 km. Gasolina. Egoera onean dago. Prezioa: 2.800 euro. Tf: 615 73 69 11.

- Taxi lizentzia salgai, Orion. Tf: 669 89 10 20.
- Izozgailua salgai. Berri-berria eta egoera onean. Tf: 696 33 28 80 (Jone).

**GALDUTAKOAK**

- Zafiro bat duen perla zurizko belarririkoa galdu nuen urriaren 11n, Blinketik Ardatza bitartean. Estimatu handia diot eta aurkitzen duenari asko eskertuko nioke 943 83 13 22 zenbakira deituko balit.
- Pendrive bat agertu zen urriaren 24an Eusko Gudari Eroski supermerkatuan. Kolore txuria eta gris metalizatua

ditu eta KARKARAKO bulegoan dago gordeta.

- Zilar koloreko eraztun bat agertu zen Orioko kultur etxe parean, urrian. Kolore askotako karratu batzuk ditu aurreko partean. Jabeak KARKARAREN bulegoan jaso dezake.

**LAN ESKAINTZAK**

- Montaje eta ajuste mekanikoan aritutako langilea behar dugu. 669 01 43 49.

**EROSGAI**

- Arkoi motako izozgailu handi bat erosiko nuke. Tf: 696 33 28 80 (Jone).

# Patxi Zubizarreta

-hamar mezu eta dei bat-

Ekainak 19, ostirala  
19:00etan, Orioko udaletxeko  
udalbatzararen aretoan



**KARKARA**  
20 urte